

Egün hun dereizüela  
Txipiak eta handiak  
Kargüdün eta kargügabeak  
Egün hun dereizüela.

## JUNES CASENAVE HARIGILE GURE ADISKIDEA

Egün ohore handia zitazüt zütaz, euskaltzain ohorezko, euskal idazle ohorezko ziren zützaz mintzatzea. Düala lautanhogeita sei urte Santa Grazin sortü zinen. Aita bearnesa oihantzain zünüan eta ama emazte isil eta jakintsüa, eüskaldun; doidoia haren ezagützeko plazera üken nizün. Eta beste bi anaiekin Henri eta Anttonirekin zure ezagützea egin nizün, Santa Grazira, zure sortherrira düala hogeita hamasei urte zanko bat ezarri nüanean.

Zure bizitzea lau ardatz handitan eraman düzü :  
Fedea, irakasle lana, eüskara eta Euskal Herria.

## FEDEA.

Gazterik, hamar urteetan gogoan hartü zünean apez izanen zinela eta Betharramera joan. Hogeita lau urteetan Betharrameko Bihotz Sakratüan apeztü zinen. Frantzian behera joanik, irakasle zinenean, ber denboran, apez egitekoak eman züntian, geroago *Orhiko txoria*, *Orhin laket*, 1981.urtean Larrainera erretore izentatü züntien eta azkenik Ibarresküin huntako erretore nausi. Haleikere, apez eginbide horien artetik eta elizalako libürü zonbait idatziz, zure denbora güzia beste xedeetara eman zünian.

Aita Junes Casenave zure bertüte bat ezagütü deizüt : besteen sinesteak eta ez sinesteak errespetatzen dütüzüla.

## IRAKASLE LANAK

Betheramita hanitxen gisa irakasle izan zira bai eta lekü batetik besteala, Palestinan, Betleemen ibili, eta Limousinen ere.

—Hogeita hamahiru urtez frantses, latina eta greko mintzajeak irakatsi

—Hamazazpi urtez Donapaleuko Etxekopar kolegioan bürüzagi

—Hamar urtez irakasleen moldatze lanetan erauntsi.

—Hamar urtez Pedagogia aholkulari edo Conseiller pédagogique

AEK ren fundatzaileen artean eta elkarte hortan hamahiru urtez irakasle.

—Gero, beti dohainik, gimnastika eta laxaldiak erakutsi eta eriak sendotü.

## EUSKARA

Düala hogeita hamasei urte, aitzinetik Ziberoako eüskara barnatik ikasirik, eüskaraz ezkribatzen hasi zinen eta lehen pastorala idatzi. Geroztik, eüskara ikasteko libürü, gramatika eta bi hiztegi egin züntüan, Ziberoako eüskara molde hunean ikastoletan sar zedin.

Donapaleuko kolegioaren bürüzagi egon zinenean, errepublikaren égalité edo bardintarzün ideia hartzez, etxekoer galtatzen zünüan «Voulez-vous que votre enfant

ne fasse pas de basque ?» Ihur ere ez zen atrebitzen «ez» erraitea. Biba zü!

Gure mintzajeari bürüz agertü dira :

*Frantses-Euskara Hiztegia*, Hitzak, Ozaze, 1989

*Euskara –frantses Hiztegia*, Hitzak, Ozaze, 1993

*Xiberoan eüskaraz berrogei ikasgei*, Süazia, Maulen 2000

*Ziberotar gramatika*, Süazia, Maule,

*Latin-euskara hiztegia, aldiz lo*

## IDAZLEA

### *Pastorala(antzerkia)*

Zertako pastorala ezkribatzen erauntsi züan aita Junesek? Zorigaitzez, jente hanitxek eüskara entzüten badüe, irratietan, telebistan edo kantoreetan hanitxek ez düelakoz irakurten ikasi pastorala sendagailü, bena badakigü, bigabostek, pastorala dela medio euskara maitatzen ikasi düela. Hala kontatü zeitan Mixel Etxekoparrek pastorala batetan aingürü izan ondoan eta nik arrapostü, geroztik, «türk» arizale ikusi nüala. Hala hala, kantoretik pastoralara igaran eta igaraiten zaizkü, Bedexagar, Berzaitz, Bordaxar, eta Etxart.

Eman diren tragerien artean, Santa Grazi, Ibañeta, Pette Basabürü, Maitena Basabürü, Zumalakarregi, Santa Kruz, Agota, San Mixel Garikoitz, Jesús, Santa Engrazi, Arnaud d'Elizagarai, baieta bearnesek galthatürük Juna Martin Pueyrredon frantsesez badütügü. Bena orai ez da beti pastoral idazleak eman nahi lükeana emaiten, herriek, idazle franko beita nahi düena häütatzen dizüe. Junes Casenavek tireta zokoetan badütü holakoak (Judita eta Holofernes, David eta Betsabea San Frantses, Frantses Iraültza, Lorraine) .

Egin zeniriokeen plazer handiena heen emaita lizateke.  
Heben diren eta ez diren herriek entzün beze.

Teatralako idazle etiketa jarri zaio bena badü  
poesia franko idatzirik, ixtorio zahar eta berriagoak bai  
eta roman edo eleberri delakoa ere euskara batuan. Noiz  
arte lo? .

*Elizalako libürüen artean agertü zen zazpiehün eta  
berrogeitahamar hoilatako, Egün orotako irakurgetiak,  
beharbada, apez oroek irakurri behar lükeena eta beste  
zonbaitek ere bai. Ontsala! Inch Allah! Batarzün Berria  
izenarekin Testamentü Berria gure üskaran eman züan.  
Ez ziren behar den bezala eman Kontzilio Vatikanoko II.  
ko lau manüen, ützülpena, ez eta ere Elizako  
mintzaldiak.*

### *Olerkia (Poesia)*

Lau lan agertü zioen

*Orhiako Naba*, Uskaltzain, Maulen, 1989

*Oihanealat*, Imagina ezazü Euskadi, Gasteiz, 1994

*Zühürtziako bideetan*, Maiatz, Baionan 2000

*Harkaitz urdina*, Ekilore, Bilbon, 2005

Badütü siesta lüzea egiten ari diren libürü zombait *Olerki  
bilduma* eta *Narrazio poetikoak* eta nik ez dakizkidanak.

### *Ikerketak (Recherches)*

Ezin konta zombat artikülü idatzi düan, han hor,  
sinestez, historiaz, ideiez, literaturaz eta mintzajeaz

—*Amikuze*

—*Sineste zahar eta ez hain zahar,*

—*Simun Gimon Zetegieta*, biografia

—*Tomas Zumalakarregi gudalburua*, biografia

—*Basabürüko ipuinak*  
Argitaragabea : *Zuberoako antzertia* (euskara batuan)  
Stefan Vul-en *Niurk* (euskara batuan)

Literatura primaka edo sari zonbait irabazi deikü aita  
Junesek:

Antzerkiko Toribio Alzaga saria bi aldiz

*Pette Basabürü* (1980)

*Agota* (1992)

Poesian, Jeux Floraux du Pays Basque, Angelun, 1999

Ipuinetan

*Zankamehe* Euskal Kultura Erakundea, 1986

*Ezpondari bürüz* Maiatz saria, 1989

*Elürte*, Hendaia hiria, 1989

Zonbaitek, eüskara, ikasi gabe jakin nahi  
lükeienek dioe eüskara zaila erabilten düala. Orai,  
zonbaiten ahotan entzüten den euskal patois murduilla  
hori ezin da idatzi bena aitzinekoen hontarzünak ez  
dütügü ahatze behar. Ea ondotik jiten diren eüskaraz  
eskolatü horiek hobeki egiten düenez?

Junes Casenave libürü haboroenak ziberotarrez  
egin dütü, nahiz dakian besterik, bena uste dü besteekin  
entelegatzeko eta eskolarako libürüen egiteko euskara  
batua ere behar dela. Haleikere, gütarik hanitx bezala  
ikastolako lehen urteetan ziberotar eüskararen irakastea  
beharrezko dela erran du. Arrenküratzen düan zerbait  
euskara ez aski mintzatzea bai eta elizan galtzea.

Ez dütüt Junes Casenaveren tirketak ikertü bena  
segür nitzaizüe aipatü ez dütüdan hontarzün hanitx  
badirela ulhünpetik, zizkatü beno lehen, jelkhi behar

dütügünak, ezen erranak dio mandoak hil ondoan ez düala zaldare beharrik.

### Gogoko dütean beste egitekoak

Ontsa bizitzeko, osagarritz ontsa bizi behar dela izan da gure Junes Casenave adiskidea hona artino irakatsi deiküna eta pratikatü. Prefosta, ez da jan eta edan gabe egon, bena beti doidoia hartzez, denbora berean egün oroz gimnastika eta yoga egitez eta besteei irakasten. Bortüan ibiltan izigarri lakat zen, bena orai mendiska elibatetan urrats zombait emaiten jakin dü; hebertik aitzina, Donapaleü altean Garrüzeko phatarraz kanpo ez dü mendiska hanitx izanen, bena ez diot aholkürrik eman behar korpützaren sanoki etxekitzen, gük beno hobeki beitati. Gazte denboran kolegioko irakasle zelarik rugbyen eta pelotakan erauntsi züan.

Ez düt ahatze behar, bedezi ez izanik ere; gütarik franko gure minez sendotü gütiala. Ber denboran etxeko eta herritarren arteko erremedioez Züberoan galthozka ibili nintzanean amarenganik ikasi erremediatzeko belarrez ehün bat izen beno haboro eman zeitadala, bai eta nola artzainek korpützeko lekü zombait tinkatüz doloreen igaranazten bazekien; hortaz ere sineste zahar bat kontatü zeitan nola Basajaunak, gisa hortan, artzain gazte bati hagineta mina idoki zion. (*Herri sendakuntza eta sendagingoa Zuberoan*, Eusko Folklore 1995)

Junes Casenave Harigile ez zen züzenean politikan sartü: bere politika bakoitza zen Euskal Herriaren geroa, gure mintzajearen geroa pastoraletan irakurten den bezala. Frantziak euskararekin erabilten düan politika kritikatu dü bena ez dü ihun ere kartarik hartü.

Bere lanekin Aita Junesek, gure akademia, gure  
Euskaltzaindia ohoratü deikü

Euskaltzain urgazle izan zen 1982.urtean

Euskaltzain ohorezko 2000 urtean

Bera ez zen Euskaltzain oso izan bere eliza lanek  
parropier lotürik etxekitzen beitzüen gure bilküretara  
ezin agertzez.

Egitez eta jarraikitzez gure Akademiaren lema  
*Ekin eta Jarrai* bete beitzü, aitzina jarraikiko düzüla  
badakizügü, jana egin düütüzün lanak argitaratü behar  
zaizkitzü. Eta erretreta hon bat har ezazü bortüa eta  
baratzea galdü badütüzü, fraide lagünen artean biziko  
zira, irus eta beti langile. Ikusartino. .

Eskerrik hanitx lehenik hau antolatzen lagüntü  
düen Xiberoa elkargoa, Altzaiko herria bai eta beste  
herriak, AEK ko lagunak, irratiak eta kazetariak.

## Mesdames, Messieurs

Brièvement exposé voici un hommage qui demanderait une vaste monographie tellement la vie de Junes Casenave Harigile est déjà bien remplie. Sa vie est marquée par quatre vertus, la patience, la modération, la tolérance religieuse et la loyauté envers ses engagements. Il choisit quatre directions d'activité: la Foi, l'enseignement, la langue et l'écriture en langue basque associé à son patriotisme basque.

### LA FOI.

Entré à Bétharram pour devenir prêtre il le fut à l'âge de 24 ans ; après un nomadisme entre Palestine, Limousin et Saint-Palais, en 1981 il revint en Soule, curé de Larrau puis des huit paroisses du Val Dextre; d'autres que moi pourront mieux parler d'un domaine qui n'est pas du tout de ma spécialité, mais en déjà vingt-neuf ans d'amitié nous avons apprécié sa tolérance envers les croyances et les non croyances des autres. Le père Junes Casenave fut et sera un prêtre en langue basque par la parole et par l'écrit.

### ENSEIGNEMENT

Entre toutes ses activités religieuses il fut professeur de français, latin et grec, en Limousin durant 33 ans, directeur du collège Etxekopar pendant dix-sept ans et en Soule bénévole de langue basque d'AEK pendant treize ans. Pour le Pays Basque nord, Formateur d'Enseignant et Conseiller Pédagogique durant dix ans.

## LA LANGUE BASQUE

Junes Casenave Harigile consacra rapidement ses travaux au dialecte souletin auquel il voulait rendre sa correction passée et sa dignité. Pour cela il publia deux dictionnaires, une méthode de basque, une grammaire basque et collabora au maintien du souletin dans les premières années de l'Ikastola et pour les adultes à AEK.

## L'ECRIVAIN

Auteur de vingt et une pastorales, cinq n'ont pas été représentées et deux d'entre elles reçurent le prix de l'Académie Basque. Le choix de la pastorale est né du souci de conserver cette tradition souletine mais il n'hésita pas à y faire passer des idées modernistes, ou des thèmes religieux ; ce choix est commandé par le fait, que depuis la loi Jules Ferry de 1880 le basque fut interdit à l'école et que les souletins ne pouvaient pas lire, sans effort, dans leur langue.

En poésie auteur de l'épopée *Orhiako naba*, de narrations poétiques et d'un recueil de poèmes, il gagna le prix de poésie de la ville d'Anglet.

Il publia plusieurs essais d'ethnologie et des monographies. Son œuvre religieuse est considérable : parut d'abord, inspirés par la Bible, un gros ouvrage de plus de 700 pages « Les lectures quotidiennes », *Egün orotako irakurgetiak*, et *Batarzün Berria*, le Nouveau Testament. Mal publiés parurent la traduction des quatre commandements de Vatican II. Les discours de l'Eglise. *Elizako mintzaldiak* ne sont pas encore édités.

Presque toute son œuvre est en souletin littéraire, un peu en basque standard ou euskara batua. Ses pastorales comportent toujours des traductions, généralement réalisées par d'autres, il écrivit une pastorale en français à la demande des Béarnais de Lanne, dont le titre est *Juan Martin Pueyrredon*.

### LE PATRIOTE BASQUE

Suivant la tradition de son ordre et par choix personnel aussi, il n'adhéra à aucun parti politique mais il eut son franc parler pour exprimer sa réprobation pour l'indifférence des autorités centrales et locales vis à vis de la langue et de la culture et son inquiétude pour l'avenir économique de notre Pays Basque qu'il aime tant.

Sa carrière est celle de quelqu'un qui n'a pas choisi la facilité car les activités religieuses et littéraires n'enrichissent que l'esprit. Je suis sûr qu'il ne regrette rien, sinon parfois la liberté de parole qui à tous nous manque fréquemment et nous pousse à contenir nos indignations. Nous vous souhaitons une heureuse et studieuse retraite. N'oubliez pas le chemin de la Haute Soule. Au Revoir.

Txomin Peillen